

# Denbora-



## 1 Aukeratu hitz zuzena

Harkakuso edo arkakuso, nola idazten ote da? Eta irudimen edo hirudimen? Hau buruhaustea! Lagunduko al diozu MANTANGORRiri hitz zuzena aukeratzeko?




## 2 Bikiak

Ainhoa margolaria etxeko hormak margotzen aritu da, eta poto hauek guztiak erabili ditu. Potoetatik bi berdinak dira. Zein?



## 3 Sarraileak

Eskolako kutxa sekretua multzo honetako bi giltzak baino ez dute zabaltzen. Zein dira giltza horiek?





## 4 Lotu bikoteak

Matematikako ariketa dibertigarria jarri die Felix irakasleak haurrei: balio bereko arrainak lotu behar dituzte. Ea zuk ere asmatzen duzun!

# -pasak

## 5 Ezberdintasunak

Dionisio dinosauroaren bi marrazki bidali dizkigu Maialenek. Bi irudien artean dauden zazpi aldeak ikusten al dituzu?



Erantzunak: 1.- Arkakuso, arnasketa, irudimen, hausnarketa eta abilezia. 2.- B eta E. 3.- 1 eta 4. 4.- A-I, E-B, H-F, G-D.

### Ikusi-makusi, zer ikusi?

Bidaia luzeren bat egin behar baduzu, hartu kontuan jolas dibertigarri hau, bidean asper ez zaitezten. Asmatu zer ikusten ari den laguna!

**1** Jokalarietako batek begi bistan duen elementu bat gogoan hartu, eta «ikusi-makusi» esango du. «Zer ikusi», erantzuko diote besteek. Hala, zein hizkiz hasten den esango die gainerako jokalariei. Esaterako:

«M hizkiz hasten den gauza bat ikusten ari naiz! Zer ote da?»

**2** Gainerako jokalariek arretaz begira hasiko dira, lagunak buruan zer duen asmatu nahian.

**3** Jokalariaren batek erantzuna dakiela uste duenean, ozen esango du. Asmatzen badu, puntu bat eskuratuko du.

**4** Partida amaitzean puntu gehien lortu duenak irabaziko du jolasa.

